

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Atal honetan, gure **enpresa aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak** hartuko ditugu kontuan; batzuk, altzariak edo lokala apaintzeko modukoak izango dira; beste batzuk, aldiz, gure ekintza aurrera eramateko ezinbestekoak direnak dira.

Adineko pertsonekin lan egingo dugunez, **kokalekua oso garrantzitsua** da: garraio publikoak gertu egon behar dira eta ez da guztiz komenigarria etxebizitza berri ugari eraiki diren auzo batean jartzea, horra, familia berriak joango baitira. Gainera, batzuk etxera jatera ez dutela joan nahi kontuan izan behar dugunez, gure lokala jatetxeetatik hurbil egon behar da. Azkenik, bezero potentzial berriak erakartzeko, lokalaren itxura erakargarria izan behar da.

Gure artean hitz egin ondoren, erabaki dugu gure lokala Deustun jartzea, Iruña kalearen inguruan. Alokatzeko lokal asko daudelako zonalde horretan baita metro geltokiak ere. Gainera, oso hurbil daude IMQa, Bilboko itsasadarra eta Osakidetza anbulatorioa eta hori beti izango da alde positiboa.

Lokalean izan behar ditugun baliabideak hurrengoak dira:

-Altzariak: sarreran mahai bat egongo da, 2 aulkiekin. Hori izango da bezeroak sartzekoan ikusiko duten lehenengo gauza. Hor, informazioa jasoko dute (liburuxkak izango ditugu prestatutako txangoak edo aktibitateak azaltzen). Bezeroek jarraitzen badute, lokalean aurkituko duten hurrengo gauza egongela izango da (2 sofarekin eta mahai batekin). Eremu horretan, hiru ate egongo dira eta eskailera batzuk. Lehenengo atea, mugikortasunarekin lotura duten aktibitateak egiteko erabiliko dugu, beste bat, zooterapia jarduteko. Eta, azkenak, komunak izango dira. Eskailerak bigarren solairura joateko izango dira, baina hor, guk (langileok) joan gaitezke bakarrik. Gela bakoitzean zenbait aulki egongo dira, baina lekua izango dugu ere bai gurgildun aulkiak pasatu ahal izateko. Koadroak eta argazkiak egongo dira lokala apaintzeko.

Altzairuen batuketa hurrengoak izango zen: 96€ mahaia + 230€ bi sofa + 100€ bi aulki (sarrerakoak) + 416€ 16 aulki (gelakoak) + bestelako gastuak (koadroak, argazkiak...) 150€
= 992€ inguru.

-Gailu elektronikoak: Informazio prozesatzeko gailu bat behar izango dugu (ordenagailua). Baita inprimagailu bat ere. Gainera, dirua gordetzeko kutxa berezia beharrezkoa izango da. Hau izango da totala: 350€ ordenagailua + 50€ inprimagailua + 15€ inprimagailu-tinta + 50€ kutxa= **465€**.

-Gastu Finkoak: Nahiz eta lehenengo hilabetean **1.457€**ko inbertsioa beharrezko izan, hurrengo hilabetetan ez da beharrezko izango hainbeste diru ordaintzea. Gero, lokalaren alokairua, ura eta argia ordainduko dugu bakarrik (arazorik ez egotekotan), dena den, hilabetearen arabera gastu gehiago edo gutxiago izango ditugu (animalien txertoak). Hauek izango dira gure gastu finkoak: 600€/hilabetero (lokalaren alokairua) + 300€ ura/gasa/elektrizitatearen gastuak (gastu hauek nahiko aldakorrak dira, horregatik, aproximazioa goitik egin dugu. Agian, gero gutxiago ordainduko dugu) + 60€ animalien janaria = 960€± ordainduko ditugu hilabetero. (Hilabeteen arabera, aldatuko dira gastuak; adibidez, udan, ez dugu neguan beste gas gastatuko).

Laburbilduz, hauek izango dira gure gastuak:

ALTZARIAK	992€
GAILU ELEKTRONIKOAK	465€
GASTU FINKOAK	960€

Alokatuko dugun lokala:

Lehen aipatutako moduan, gure enpresaren jarduera aurrera eraman ahal izateko lokal bat izan behar dugu; baina, ezin dugu edozein lekutan jarri. Hauek dira leku hoberenak aurkitzeko jarraituko ditugun ezaugarriak: eskaria, edo, gure kasuan, **bezero potentzialak hurbil** izatea ezinbestekoa izango da (ez da komenigarria ipintzea adineko jendearentzat bideratuta dagoen enpresa bat, etxebizitza berriak egin dituzten auzo batean; azken honek, seguruenik, jende gazteaz beteta egongo delako), beste alde garrantzitsuenak lokalaren ikuspena edo kostua dira. **Ezinbestekoa da lokala egoera onean egotea, itxura faktore**

garrantzitsua delako. Hormak margotuta egoteak, lokala garbia eta altzari berriak izateak gure bezeroek enpresaz duten ideia hobetuko du.

Lokal ezinhobea aurkitu dugu Blas de Otero Kalean (Deustun) eta horren alokairua, lehen aipatutako moduan, 600€ ingurukoa izango da. Espero dugu lokalaren kokapena aproposa eta lagungarria izatea. Gainera, gure enpresa sortzeko ez ezik, **goiko solairua gure bizitza propioa** eramateko erabiliko dugu ere; horregatik, oso garrantzitsua da beharrezko lekua eta espazioa izatea, modu aproposan bizi ahal izateko eta batez ere, animaliak ondo egoteko. Gerta daiteke etorkizunean aldaketak egotea, edo lokal txikiagoa/handiagoa behar izatea, baina momentuz, modu honetan planifikatu dugunez, garrantzi handia ematen diogu lokalari. Hori izango baita gure enpresaren funtsezko baliabiderik nagusia.

